



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK ETA GETXOKO UDALAK, ADINEKOAK ETA GAZTEAK ALKARREGAZ BIZIKO DIRAN ZENTRO “AITZINDARIA” ZABALDUKO DABE ERROMON

- **Azpiegiturak ia 13 milioi euro balioko ditu, eta Administrazioa bien artean ordainduko dabe.**

(Bilbon, 2020ko zezeilaren 21ean). Berak eskatuta, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Foru Diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordera etorri da, *Bizkaia Egiten* dokumentuan jasoten dan “Getxoko Belaunaldien Arteko Zentroa” egitea helburu dauen proiektuaren aurrerapenak azaltzeko. “Adinekoen eta gazteen artean belaunaldien arteko alkarbitzea bultzatuko dauen zentro barrizalea eta aitzindaria”, diputatuaren berbetan.

Azpiegitura, azkenean, Getxoko Erromo auzoan eregiko da, 7.000 metro karratuko lur-sail batean. Bertan, gazteentzako 40 apartamentu dotazional eta mendekotasun egoeran dagozan personentzako egoitzako 100 plaza egongo dira, aurreko astean Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Getxoko Udalaren artean lortu zan akordioaren ostean.

Ekimen “barria, desbardina eta aitzindaria” da Estaduan, eta helburua, “adin desbardineta personak alkarregaz bizitzeko eredu” garatzea da. “Espazio komunak konpartiduko ditue eta alkarregaz aritu ahal izango dira, gizarte arloko belaunaldien arteko isolamendua saihestuz”. Helburua “gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa” lortzea da, azpimarratu dau.

Diputatuak, une honetan funtzionetan ari dan Deventerreko (Holanda) zentroa aitatu dau jarraituko dan eredu moduan. Abuztuan bisitau eban bere saileko ordezkartza batek, eta joan dan astean udaleko teknikariek. Komunitatearen aurrean “zabalik” dagon azpiegiturak “200 boluntario baino gehiago ditu, mendekotasuna daukien 150 personari emoten deutse arreteak eta 30 proiektu pilotu jarri ditu martxan”, aurreratu dau.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Getxoko Udalaren laguntzagaz eregiko eta martxan jarriko dauen azpiegitura barriak 13 milioi euroko inbertsinoa eskatuko dau. Ia 10 milioi –9.980.000 euro– foru erakundeak jarriko ditu, hiru urtetan banatuta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

(2021, 2022 eta 2023), eta generakoa udalerrriak jarriko dau. Hori da proiektuaren barrikuntza nagusietakoa, “erakundeen arteko lankidetzatik” sortuko dala. Hitzarmena Foru Erakundeko Gobernu Kontsejuak onetsiko dau datorren martitzenean, zezeilaren 25ean.

Ekimen horrek, “gizarteak dituan behar garrantzitsu bira” batera erantzun gura deuten alkarbizitzako eredu barrizalea gauzatzea aurreikusten dau. Alde batetik, “udalerriko gazteei gurasoen etxea izten laguntzeko tresna alternatiboa da”, oso beharrezkoa, kontuan izaten badugu Euskadin “30 urtetik beherako gazteen %17 baino ez dirala emanzipetan”; eta, bestetik, Getxoko biztanleriaren zahartze prozesuari eta Aldundiak, gizarte zerbitzuen kartera hedatzeko esparruan identifikatu dituan beharrei erantzun gura jake.

Erakunde bira artean lortu dan akordioan oinarrituta, udalak une honetan Nagusien Etxea dagon lur-saila lagako dau 75 urterako, Aldundiak, Azpiegiturak foru soziedadearen bitartez, ekipamendua eregi daian, aurreikuspenak beteten badira, “xehetasunen proiektua” amaitu eta gero “2021. urtearen erdialdean” bukatuko dan prozedura administratiboaren ostean.

Orokorrean, Batzarretako taldeek “modu positiboan” jaso dabe albistea, baina “xehetasun gehiago” eskatu dabe. EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeetatik, proiektua egiteko orduan komunitadea kontuan hartzea eskatu dabe, oraindino ez dalako holangorik egin. Koalitzino abertzaleak, Arantza Urkaregi batzordekidearen bitartez, eredu ez dala barrizalea esan dau, Gipuzkoako Usurbilen badagolako belaunaldien arteko proiektu bat.

Foru Gobernua eusten daben Batzarretako taldeek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) eskertu egin dabe agerraldia, eta Administrazino biak zoriondu ditue, “mendekotasuna daukien personen arretan pausu garrantzitsua emoteagaitik”, Juan Otermin sozialistak adierazo dauenez. Getxoko udalerrian, batez be, “bertan egoitzetako plazen faltea egoalako”, gehitu dau Elena Coria jeltzaleak. Zentroa “oso leku egokian” dagola azpimarratu dau, “metroa gertu, eta horrek familien irisgarritasuna erraztuko dau”.

Beste alde batetik, Batzarretako Elkarrekin Bizkaia taldeak Gizarte Ekintzako Foru Diputatuaren agerraldia eskatu eban, umezaroko sareko izaera espezializauko egoitza zerbitzuaren jarraipenaren barri emoteko. Eneritz de Madariagak esan dauenez, zerbitzu hori kudeetan dauen enpresak indarrean dagon hitzarmenari uko egiteko asmoa adierazo eban, eta foru diputatuak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

baieztu egin dau hori, baina ostean “hitzarmena alde bien adostasunagaz luzatu dala” esan dau. Horrez gain, adierazo dauenez, bere sailak “barriro dimentsiona ditu” sarea eta baliabideak, “hilaro” egiten dan moduan, “une bakotxean egongo dan umeen babes faltea aurreikustea ezinezkoa jakulako”.

Modu berean, talde moreak Murilloren agerraldia eskatu dau, Bizkaiko umeak eta nerabeak babesteko sistemako adinbakoak 18 urte beteten dituenen arretea eta babesa emoten jarraituko dala bermatzeko mekanismoak ezagutzeko. “Asko dira urtero, adinez nagusi egiten diranean, babeseke sistematik urtetan daben eta etxe bako persona bilakatzen diran nerabeak, eta batzuentzat gertakari traumatikoa izan daiteke”, esan dau Eneritz de Madariagak. Murillok adierazo dauenez, Aldundiaren eskumenak adinez nagusi egiten diranean amaitzen dira eta, halanda be, Umezaroko Zerbitzuak, salbuespen moduan, “gaixotasun bat gertatzen danean”, Teresa Laespadak zuzentzen dauen sailagaz gertatzen dan moduan, persona horreek babesten jarraitzeko tresnak ditu, baina kontuan euki behar da gehienetan gai hori Aldundiaren eskumenetatik kanpo geratzen dala.

Bukatzeko, EH Bilduk, egoitza eta plaza kontzertauak daukiezan enpresek emon behar daben informazioaren ganean galdetu dau, oraindino ez dalako holangorik egin. Diputatuak esan dauenez, “Baterazintasunen Arauak eta zergaiti administratiboek” eragindako atzerapena dago, baina hurrengo asteetan, “martiaren erdialdean”, 2019ko abenduaren 31ko datuak jasoten dituan txostena argitaratuko da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN Y EL AYUNTAMIENTO DE GETXO ABRIRÁN EN ROMO UN CENTRO “PIONERO” DONDE CONVIVIRÁN MAYORES Y JÓVENES

- **La infraestructura costará casi 13 millones de euros y será sufragada por las dos Administraciones.**

(Bilbao, a 21 de febrero de 2020). A petición propia, el Diputado Foral de Acción Social, Sergio Murillo, ha acudido a la Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia para explicar los avances del proyecto incluido en el documento *Bizkaia Egiten* “Centro Intergeneracional de Getxo”, un centro “innovador y pionero que favorecerá la convivencia intergeneracional entre personas mayores y jóvenes”, ha dicho.

La infraestructura se construirá finalmente en el barrio de Romo, en Getxo, en una parcela de 7.000 metros cuadrados, que albergará, de manera conjunta, 40 apartamentos dotacionales para jóvenes y 100 plazas residenciales para personas en situación de dependencia, tras acuerdo alcanzado la semana pasada entre la Diputación foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Getxo.

Se trata de una iniciativa “nueva, diferente y pionera” en el Estado, que prevé desarrollar “un modelo de convivencia entre personas de diferentes edades donde compartirán espacios comunes y podrán interactuar, evitando el aislamiento social e intergeneracional”. El objetivo es conseguir “una sociedad más inclusiva y cohesionada”, ha remarcado.

El diputado ha puesto como modelo a seguir un centro que actualmente funciona en Deventer (Holanda) que fue visitado por una delegación de su departamento en agosto, y la semana pasada por técnicos municipales. Esta infraestructura, “abierta” a la comunidad, cuenta con más de “200 voluntarios, atiende a 150 personas dependientes y ha puesto en marcha 30 proyectos piloto”, ha detallado.

La construcción y puesta en marcha de esta nueva infraestructura por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, en colaboración con el Ayuntamiento de Getxo, supondrá una inversión de 13 millones de euros. Casi 10 millones -9.980.000



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

euros- serán aportados por la institución foral repartidos en tres anualidades (2021, 2022 y 2023), y el resto los pondrá el municipio, lo que representa una de las principales novedades del mismo por lo que tiene de “colaboración interinstitucional”. El convenio será aprobado por el Consejo de Gobierno de la Institución foral el martes próximo, 25 de febrero.

Esta iniciativa prevé desarrollar un modelo innovador de convivencia que dé respuesta, de forma conjunta, a “dos importantes necesidades sociales”. Por una parte, “supone una herramienta alternativa habitacional para la emancipación de las personas jóvenes del municipio”, algo necesario si se tiene en cuenta que en Euskadi “sólo se emancipan el 17% de los vascos y vascas menores de 30 años”; y, por otra, supone poder dar respuesta al envejecimiento poblacional de Getxo y a las necesidades identificadas por la Diputación en el marco del despliegue de la cartera de servicios sociales.

En virtud del acuerdo alcanzado entre ambas instituciones, el consistorio cede la parcela, donde se ubica actualmente la Nagusien Etxea, por un periodo de 75 años para que la Diputación, a través de la sociedad foral Azpiegiturak, construya el equipamiento, tras un procedimiento administrativo que espera concluya “a mediados de 2021” con el “proyecto de detalle” concluido.

En líneas generales, los grupos junteros han recibido “positivamente” la noticia, aunque han echado de menos un “mayor detalle” del proyecto. Desde las filas de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han pedido que se tenga en cuenta a la ciudadanía a la hora de elaborar el proyecto, algo que no se ha hecho todavía. La coalición abertzale, a través de la juntera Arantza Urkaregi, ha sostenido, además, que el modelo no es innovador, ya que existe un proyecto intergeneracional en la localidad guipuzcoana de Usurbil.

Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) han agradecido la comparecencia y han felicitado a las dos Administraciones por dar “un paso importante en la atención de las personas dependientes”, según el socialista Juan Otermin, especialmente en el municipio de Getxo “donde había falta de plazas residenciales” ha añadido la jeltzale Elena Coria, quien ha aplaudido que el centro esté en una ubicación “idónea, cerca del metro, lo que facilitará la accesibilidad de las familias”.

Por otro lado, el Grupo Juntero Elkarrekin Bizkaia había solicitado la comparecencia del Diputado de Acción Social para que informara de la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

continuidad del servicio residencial de carácter especializado de la red de infancia. Según Eneritz de Madariaga, la empresa gestora de este servicio había mostrado sus deseos de renunciar al convenio vigente, algo que el diputado foral ha confirmado, si bien ha informado seguidamente de que “se ha prorrogado de mutuo acuerdo el convenio”, al tiempo que su departamento “redimensiona” la red y los recursos, algo que se hace “todos los meses” debido a que “nos encontramos ante una imposibilidad de prever la desprotección infantil de cada momento”, ha dicho.

Asimismo, el grupo morado había solicitado la presencia de Murillo en la Comisión de Acción Social del Parlamento de Bizkaia para conocer los mecanismos que garantizan la continuidad de la atención y protección a los menores que salen del sistema de protección a la infancia y adolescencia de Bizkaia. “Son muchos los y las adolescentes que anualmente y tras cumplir la mayoría de edad salen del sistema de protección, y pasan a convertirse en personas sin hogar, algo que para algunos se puede convertir en un episodio traumático”, ha dicho la juntera de Elkarrekin Bizkaia Eneritz de Madariaga. Murillo se ha referido a que la competencia de la Diputación acaba con la mayoría de edad y, pese a ello, tanto el Servicio de Infancia de manera excepcional, “por ejemplo una enfermedad”, como el departamento que dirige Teresa Laespada cuentan con herramientas para seguir ofreciendo amparo a estas personas, si bien teniendo en cuenta que, en la mayoría de casos, este asunto se escapa del ámbito competencial foral.

Por último, EH Bildu ha preguntado sobre la información que deben facilitar las residencias con plazas concertadas, algo que no se ha hecho todavía. El diputado ha señalado que existe un retraso, motivado “por la Norma de Incompatibilidades y por causas administrativas”, pero que en las próximas semanas, “a mediados de marzo”, se publicará el informe con datos a 31 de diciembre de 2019.